

EHUri buruzko Martin Orberen kezkak

EGIA esan, aski asaldaturik geratu nintzen nire izena ikusi nuenean Martin Orbek sinatzen zuen idazki baten izenburuan (EUSKALDUNON EGUNKARIA, 1992.12.30). Artikulu horrek erantzuna ematen zion nik erdaraz *El Correo Español-El Pueblo Vasco* izenekoan argitaratu nuen beste bati. Egia esan, halako fede aitorenpenik egitea gustatzen ez zaidan arren, ez dut inolako ahalkerik erdarazko egunkari horren eguneroko irakurlea naizela esateko. Martin Orbek, ordea, ez du ohiturarik —gogorik ere ez, berak dioenez— halako lanik hartzeko. Nik ezin dut hori kritikatu, bakoitzak ikusi behar baitu, azken batean, zer nahi duen irakurri, zer ez eta nola nahi duen informazioa eskuratu. Nik ahal dela, egunkari bat baino gehiago irakurtzen dut eguneroko. Horrexegatik erosten dut ahal dudana guztietan EUSKALDUNON EGUNKARIA ere (bide batez, ez eguneroko, Leioako inguruetan harreretako bukatzen baita. Zenbaitetan ez dago modurik egunkaria aurkitzeko). Martin Orbek egin didan gutun ireki horretan Euskal Herriko Unibertsitatetik (EHU) kaleratu diren zenbait irakasleren auzia aipatzen da eta egi-leak nik lehenik egingakoan esaten nituenen-gatik «pena, pena handia, pena mingotsa» sentitzen duela dio. Iragandako hilabeteetan ikasleek hainbeste ordu galdu zituztenean, irakasleen artean muturrekoak gurutzatu zirenean, errektoregoan jendea bahitu zutenean, errektoreari astinaldiak eman zizkiontenean, gure artean gibelak emanda ibili ginen... ez nuen ikusi orduan Martin Orbe orain, egunkarian ateratako lerro batzuegatik bezala, hain goibeldu eta minberaturik. Zer egingo diogu ba. Halakoetan mukizapia ateratzea izaten da egokiena.

Zein da Martin Orberi bihotza hain hurbitetik ukitzen dion arazoa? EHUKo ardura dugunok behin eta berriz azaldu dugun bezala, euskaraz eta erdaraz, hitzez eta idatziz, kontua hauxe da: orain dela hilabete batzuk, funtzionari ez ziren EHUKo irakasleek beren kontratuak bukatu zitzaizkienean, EHUK kontratu berriak eskaini zizkien. Kontratu hauen izaera administratiboa da, hori baita erakunde honek eskain dezakeen kontratu mota bakarra. Irakasle guztiak, bederatzik izan ezik, sinatu zuten kontratu berria. Sinatu ez zuten irakasleek ziotenez, berek eskuartearen zuten kontratuaren izaera bestelakoa zen, laborala, eta gainera bukatze eperik gabekoa. Beraz, berek ez zuten bestelako kontratu berririk sinatu beharrik. Bi ikuspuntu hauen arteko tirabirak auzitara eraman ziren eta uda partean Auzitegi Gorenak erabaki zuen, gorago eraman ezin den epai batean, irakasle hauek ez dutela arrazoirik, berek hala nahi izan dutelako kanpora joan direla eta EHUKen jokabidea zuzena dela.

Bederatzi lagun hauek gauzak hala ikusten ez dituztenez gero, berek beste modu batera aurkeztzen dute egoera: EHUK despeditu ditu, kalera bota ditu, ez baitie kontratu berririk eskaini. Eta hori da, tamalez, egunkari honetan nagusitu den bertsioa ere «EHUK kaleraturiko irakasleek» mintzo denean. EHUKtik kalera-tuak bai, EHUK kaleratuak ez. EHUK ez baitu inor ere kaleratu, ez baitu inor ere despeditu. Nola hitz egin daiteke «despedituz», EHUK denei, banan-bana, eskaini badie kontratua? Zer esan lezake Labe Garaietako langile batek bere izena beste hauen parean ikus baleza, hura bai, inolako aukerarik gabe kalean jarria familia bat atzean duela eta hauek ere kalean,

baina eskaini zaien kontratua sinatu nahi izan ez dutelako? Hori al da 'despidoaren' zentzu berria? Hau da istorio honen lehenbiziko zatia. Goazen bigarrenera.

Kalean dauden lagun hauen ordezkari batek nik neurea idatzi nuen egunkari eta hizkuntza berean argitaraturiko beste lan batean (hau ere nireari erantzuna eman nahian) aski garbi aitortzen du ez dutela kontratua sinatu nahi izan. Eta ez dute sinatu nahi izan kontzientzi arazoengatik, kontzientzi objeizioengatik alegia. Beraz, kontratu administratibo bat sinatzeak hain kontzientzi arazo larriak sortzen dizkie, nahiago dute lanik gabe geratu. Baina hemen berrirori ere aldarazten dute kontzeptu honen esanahia. Egia da kontzientzi objeizioa definitzea ez dela gauza erraza, baina honekin batera egia da ere mugak nontsu dauden zehaztea ez dela hain zaila. Batek objeizioa jar dezake burutu nahi ez duen zerbait egitera bortxatzen dutenean: soldadukoa egitea, mediku bat abortoa egitea, norbaiten bizia salbatzeko odola aldatzea (Jehovaren Lekukoen kasuan), e.a. Orduan sor liteke kontzientzi objeizioa batek ez badu soldadukorik egin nahi, berak hala uste duenez jaio gabe dagoen ume

— P — PRAKTIKAN NEGOZIAZIOA BUKATZEKO DAGOEN BIDE BAKARRA EHUK BEDERATZI LAGUN HAUEK ESKATZEN DUTENARI BAIIEZKOA EMATEA DA, EGIN EZIN DUENA.

baten bizitza eten nahi ez badu edo erlijioak hala eskaturik besteren odolik bere gorputzean jaso nahi ez badu. Horietan aski horien antzekoetan gertatzen da objeizioa. Hiru kasu horietan, defentsa ziurtatzeko, fetoa salbatzeko edo bizitzarik ez galtzeko, gizarteak bortxatu egiten baitu gizabanakoa haren baldintzak betetzera, hartarako norberaren usteak zapalduz geratzen badira ere. Baina, jakina, behar hori desagertzen baldin bada, ez da kontzientzi objeizioa jartzeko arrazoirik: bat ez badute soldadukoa egitera bortxatzen, aborto bat egitera behartzen edo beste norbaiten odola bereganatzera obligatzen, ez dago objeizioarendako lekurik.

Oso nekez argudia daiteke EHUKen kasuan kontzientzi objeizioarekin: inor ez dago beharturik kontratu bat, administratiboa izan ala ez, sinatzera. Eta obligaziorik ez bada, ez da objeiziorik ere. Edo bestela, 'despidoaren' kasuarekin gertatzen zen moduan, orain ere 'kontzientzi objeizioaren' kontzeptua esanahiaz aldaturik geratzen da, orain arte izan ez duen berri batez jabetuz. Eta hala aldatzen bada, non jarri muga? Zer gertatuko litzateke, esaterako, EHUKo arduradunok esango bage-nu ez dugula administratiboa ez den kontraturik sinatzera uzten, ez legez ezin dugulako,

baizik administratibo ez diren kontratu guz-tiek, oso delikatuak garenez gero, kontzientzi objeizioa sortzen digutelako? Nork onar lezake halakorik? Beraz, nahiko argi dago hemen errealtateari buelta eman nahi zaiola, hitzak aldi bakoitzean hobekien suertatzen diren moduan erabiliz.

Hau guztia dela eta, hala ere, Martin Orbe-ekin nago auzia bideratu beharko litzakete-lakoan. Horretan ere, Martin, pentsa dezake-zunez, zuk ezin duzu izan Unibertsitateko ar-dura dugunok baino interes handiagoa gauzak behar bezala egiteko, zuri eta laguntza bat-zordeko kide guztiei baino buruko min han-diagoak eman eta ordu gehiago galarazi bai-tizkigu arazo honek. Ez duzarik izan horretan. Kontua da, ordea, gauzak ez direla borondate onez bakarrik konpontzen. Borondate ona behar da, denen aldetik, baina ez da aski. Arazoa konpontzen hasteko gure joko arauak zein diren zehaztu behar dira, eta denok onar-tzen ditugun ikusi.

Ni neu ez nago unibertsitateko legeriarekin batere konforme, baina dagoen bitartean errespetatu behar dut. Eta Unibertsitatean kargo publiko bat naizenez, errespetatu eta errespetarazten saiatu. Ez dago besterik. Hori ulertzen ez den bitartean, jai dugu denok. Arazo honetan, adibidez, epai batek esan digu zer egin eta gure lana da hori betetzen saiatzea. Besterik uste duenak ez dizkigu kontuak guri eskatu behar, legeak egin dituenari baizik eta hartarako hemengo sistema aski gardena da: legeak Parlamentuan edo Gasteizko Legebil-tzarrean, talde politikoen bitartez, egiten dira, ez EHUKo errektoregoan. Hori uste dugu Errektoregoko taldekide guztiok, horixe jarri genuen klaustroan aurkeztu genuen progra-man, programa hori betetzeko aukeratu gin-tuzten eta irakasleen arazo honetan han esan-dakoa betetzen baizik ez gara ari. Honetan ez da baten edo gehiengoaren kontua, errektore-ak eta errektoreorde guztiak berdin pentsa-tzen baitugu eta pentsatu izan baitugu. Go-bernu Batzarrean ere (demokratikoki auke-raturiko aginte organismo berau) botu bat besterik ez zuten izan euren alde. Prest na-goela kontratu modu desberdinak bultzatze-ko? Bai, baina honek ez du gainera punttu batean ere aldatzen, kontratu desberdinak ezartzea nahi baldin badut parlamentuan di-tudan ordezkariak eskatuko baitiet. EHUn ne-goiazioa eta elkarriketa eskatzen da, itxu-raz. Praktikan, ordea, negoziatioa bukatzeko dagoen bide bakarra EHUK bederatzik lagun hauek eskatzen dutenari baiezkoa ematea da, egin ezin duena.

Beraz, hauxe zen, nire erdal idazkiaren az-pian zegoen mamia. Modu ironikoan esana? Agian. Bihotz sentikorra eta ezta dutenei mina sortarazten diena? Beharbada. Iraingar-ria? Ez dut uste. Eta 'batez ere', kideak di-tudan irakasleekiko errespetu ezaz? Zer nahi duzu esatea? Ez, jauna: kideak nituen, baina kidesun hori berek hala nahirik galdu zen, EHUK eskaini zien kontratua sinatuko ez zu-tela esan zutenean. Harrazkero ez dira EHUKo irakasleak. Nolanahi ere, ironia kontuen gai-netik dago auzi-mauzia zertan den jakitea, eta egunkari honen irakurleek ere merezi dute datu gehiago izatea. Horregatik egin dut arti-kulua hasieran uste nuen baino luzeagoa.

PELLO SALABURU
EHU-KO ERREKTOREORDEA

BERRIAKZIRI



JON IDIGORAS
Herri Batasunako
parlamentaria
DEIA

«Lotsa ematen dit zer soldata dudana esateak»



RAFAEL GURREA
UPNko idazkari
nagusia
ABC

«UPNren foralismoa eta nazionalismoa oso desberdinak dira»



JACQUES PAVLOVSKY
Euskal
erreportaria
ARGIA

«Vietnamekoaren ondoren agintariak kazetarien lana kontrolatzen dute»



ALFREDO RAMBLA
Aidua industri
gaietan
NAVARRA HOY

«Merka-tuen zabal-tzeak eragin biderkatzailea izango du Nafarroan»

ZAKILIXUT

© Olariagak

TANTA bat izan naiz aidean,
Izar dirdiratsu bat izan naiz,
Hitz bat naiz liburu batetan,
Neu izan naiz liburua,
Argia izan naiz kriseiluan,
Urte bat eta hiru hilabete,
Hirurogei ibai iragaiteko
Zubi bat izan naiz,
Arranoa bezala ibili naiz,
Untzi bat izan naiz itsasoan,
Buruzagia izan naiz guduan,...

